



Cod.Expediente:
2022UDAL0005

SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

UDALBATZA AKTA

2022KO URRIAREN 5EKO EZOHICO SAIOA

Soraluzeko herrian, bi mila eta hogeita biko urriaren 5ean, 19:00 orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Udalbatza aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Verónica Galarraga Izagirre eta Iñaki Rubio Torrientes, Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Roke Akizu Aizpiri eta Maite Quintanilla Lete zinegotzi zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakari zapean elkartu dira, lehenengo deialdiz eta behin behineko Idazkari lanetan Itziar Sagastagoia Zabala andrea arituz.

Bertaratu ezina justifikatu du Jone Alberdi Alvarez andreak.

1.- 2022KO UZTAILAREN 7KO SAIOAREN AKTA ONARTZEA.-

Bertaratutako zinegotziek aho batez onartzen dute 2022ko uztailaren 7ko udalbatza akta.

2.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.-

Uztailaren 6ko 111/2022 zenbakidun dekretutik irailaren 28ko 171/2022 zenbakidun dekretu arteko Alkateza dekretuen berri jaso du Udalbatzak.

3.- TASA BERRI BATEN SORKUNTZA HAUTAPROBAK EGITEAGATIK.-

2022ko maiatzaren 2ko osoko bilkuran Soraluzeko Udalaren lan-eskaintza onartu zen. Eskaintza horrek aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesua egituratuko du, Enpleguko behin-behinekotasuna berrezartzeko premia neurri buruzko 20/2021 Legea aplikatzearen ondoriozkoa. Eskaintza horren ondorioz, hainbat eskaera jasotzea aurreikusten da, eskaintako plazen antzeko probetan udal honetan aurreko deialdietan aurkeztu diren

ACTA DEL PLENO

SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 5 DE OCTUBRE DE 2022

En la localidad de Soraluze, siendo las 19:00 horas del día 5 de octubre de dos mil veintidós, previa convocatoria, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento las señoras y los señores Patricia Borinaga Albeniz, Verónica Galarraga Izagirre e Iñaki Rubio Torrientes, Tenientes de Alcalde, y Ramón Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Roke Akizu Aizpiri y Maite Quintanilla Lete concejales, se reúnen bajo la presidencia del Alcalde D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria, actuando como Secretaria accidental Dña. Itziar Sagastagoia Zabala.

Excusa su asistencia la concejala Jone Alberdi Álvarez.

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 7 DE JULIO DE 2022.-

Se aprueba por unanimidad de los corporativos asistentes el acta del Pleno de 7 de julio de 2022.

2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-

Se da cuenta al Pleno de los decretos comprendidos entre el decreto de Alcaldía número 111/2022, de 6 de julio, y el número 171/2022, de 28 de septiembre.

3.- CREACIÓN DE NUEVA TASA POR REALIZACIÓN DE PRUEBAS SELECTIVAS.-

En sesión plenaria de fecha 2 de mayo de 2022 se aprobó la oferta de empleo del Ayuntamiento de Soraluze que articulará el proceso de estabilización y consolidación de empleo temporal derivado de la aplicación de la Ley 20/2021 de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo. Como consecuencia de esta oferta de empleo, se prevé la recepción de numerosas solicitudes atendido el número de opositores que se han

ESKU416e656b-4150-4d1c-81f8-ab36a1dd48ff

oposiziogileen zenbatekoa kontuan izan da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean araututakoaren arabera, toki-erakundeek tributuoak ezartzeko eta eskatzeko autonomia izango dute, toki-ogasunak arautzen dituen Estatuko legerian aurreikusitakoaren arabera. Bestalde, toki-erakundeek zergen arloan erregelamenduak egiteko duten ahalmena beren zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalen eta kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzako ordenantza orokorren bidez gauzatu da. Horregatik guztiagatik, egokitzat jotzen da azterketa-eskubideengatik udal-tasa bat ezartzea, eta justifikatuta dago enplegu-eskatzailleek berek eskatzen dituzten zerbitzuei dagokielako; zerbitzu horien finantzaketa ez litzateke bidezkoa izango beste finantza-baliabide batzuekin erantzutea eta.

Kontsolidazio-hautaketa-prozesu horietarako izango diren inguruabar bereziak kontuan hartuta, eta hautaketa-prozesuetan herritarren parte-hartzea erraztearen eta eskaerak pilatzea saihestearen arteko oreka mantentzen saiatuta, eta horrek kudeaketarako ekar dezakeen zailtasuna kontuan hartuta, ondoren adierazten den tarifa berria onartzea proposatzen da:

1.Ñ.- SORALUZeko UDALAK DEITUTAKO HAUTAPROBAK EGITEKO TASA

— Tarifa aplikatzeko arauak

Tasaren zergapeko egitatea udalak aurrera eramaten dituen hautaketa-prozesuetako udal-jarduera administratiboa da. Hautaketa-prozesu horiek funtzionarioen edo lan-kontratuko langileen plantillan hutsik dauden lanpostuak betetzeko izan daitezke.

Tasaren subjektu pasiboa Udalak funtzio publikoan sartzeko onartutako deialdietan izena ematen duen pertsona oro izango da, bitarteko edo aldi baterako langileak eta lan-poltsak hautatzeko.

Hautaprobetan izena emateko eskabidea egiten den unean sortuko da tasa, eta nahitaezkoa izango

presentado en convocatorias anteriores en este Ayuntamiento en pruebas similares a las plazas ofertadas.

Conforme a lo regulado en la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, las entidades locales tendrán autonomía para establecer y exigir tributos de acuerdo con lo previsto en la legislación del Estado reguladora de las Haciendas locales. Por su parte la potestad reglamentaria de las entidades locales en materia tributaria se ejercerá a través de Ordenanzas fiscales reguladoras de sus tributos y de Ordenanzas generales de gestión, recaudación e inspección. Es por todo ello que se estima adecuado establecer una Tasa municipal por derechos de examen y está justificado por corresponder a servicios que demandan los propios solicitantes de empleo y cuya financiación no sería justo que se atendiera con otros recursos financieros.

Considerando las circunstancias especiales que concurrirán para estos procesos selectivos de consolidación e intentando mantener un equilibrio entre facilitar la participación de la ciudadanía en los distintos procesos selectivos y evitar la aglomeración de solicitudes y la consecuente dificultad de gestión que ello puede suponer, se propone la aprobación de la nueva tarifa que se indica a continuación:

1.Ñ.- TASA REALIZACIÓN PRUEBAS SELECTIVAS CONVOCADAS POR EL AYUNTAMIENTO DE SORALUZE

— Normas de aplicación de la tarifa.

Constituye el hecho imponible de la tasa la actividad administrativa municipal propia de los procesos selectivos que lleve adelante el ayuntamiento. Dichos procesos selectivos pueden ser para cubrir plazas vacantes en la plantilla de personal funcionario o laboral.

El sujeto pasivo de la tasa será toda persona que se inscriba en las convocatorias aprobadas por el Ayuntamiento para acceso a la función pública como para selección de personal interino o temporal, y bolsas de empleo.

El devengo de la tasa de producirá en el momento de la solicitud de inscripción en las pruebas selec-



Cod.Expediente:
2022UDAL0005

SORALUZEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

da aldez aurretik tasa ordaintzea proba horietan parte hartzeko.

Hautagai bakoitzak 20 euroko kuota ordaindu beharko du.

Tasa modu nominalean eta indibidualizatuan ordainduko da hautaketa-prozesu bakoitzerako, eta, hainbat plaza dauden kasuetan, lortu nahi den plaza bakoitzeko, betiere plaza bakoitzak lehenengo ariketa berezia badu.

Proposamena bozkatu ondoren, honako hau **ERABAKI DA**, bertaratutako zinegotzien aho batekotasunez:

LEHENENGOA: Ordenantza Fiskalean tarifa berria sortzeko proposamena onartzea, proposatu den bezala.

BIGARRENA: Jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epea irekitzea, hogeita hamar egun baliioduneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

HIRUGARRENA: Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betikotzat joko da, osoko bilkuraren beste erabakirik behar izan gabe, eta behin betiko argitaratuko da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera indarrean sartuko delarik.

Unai Larreategi zinegotziak adierazten du, nahiz eta ikuspuntu teknikitik proposamena zuzena izan eta ondo arrazoituta egon eta tarifaren sorrerarekin ados egon, tarifa berria sortzea eta ezartzea azter zitekeela, deialdi mota, lanpostuen tipologia aintzat hartuta eta ere bai ikuspegi sozial batetik, hala badagokio, salbuespen motaren bat aurreikusiz.

4.- 2023 URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK.-

Euskal Autonomia Erkidego mailan KPIaren urte arteko aldakuntza, 2021ko abuztua eta 2022ko abuztuaren artean, % 10,3 izan da.

Igoera horrek ez du biztanleriaren

tivas, siendo obligatorio el ingreso previo de la tasa para participar en las mismas.

La cuantía de la tasa será de 20 euros por cada participante.

La tasa se abonará de forma nominal e individualizada para cada proceso selectivo y, en aquel en que haya varias plazas, por cada plaza a la que se opte, siempre que cada una de ellas tenga un primer ejercicio diferenciado.

Sometida a votación la propuesta antedicha, por unanimidad de votos de los corporativos asistentes, se **ACUERDA:**

PRIMERO: Aprobar la propuesta de creación de nueva tarifa en la Ordenanza Fiscal tal y como se ha propuesto.

SEGUNDO: Abrir un periodo de información pública y audiencia a los interesados por el plazo de treinta días hábiles para la presentación de reclamaciones y sugerencias

TERCERO: En el caso de que no se presenten reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, sin necesidad de nuevo acuerdo plenario y se procederá a la publicación definitiva para su entrada en vigor desde el día siguiente al de la publicación.

El concejal Unai Larreategi manifiesta que si bien desde un punto de vista técnico la propuesta es correcta y está bien argumentada y están de acuerdo con la creación de la tarifa, podría haberse analizado la creación y establecimiento de la nueva tarifa atendiendo al tipo de convocatoria, tipología de puestos de trabajo a los que se opta, y también desde una perspectiva social, previendo en su caso algún tipo de exención.

4.- ORDENANZAS FISCALES PARA EL AÑO 2023.-

La variación del IPC interaño a nivel de la Comunidad Autónoma de Euskadi entre agosto 2021 y agosto 2022 ha sido del 10,3 %.

Esta subida no refleja la subida del poder

benetako erosi ahalmenaren igoera islatzen; izan ere, bertan hainbat faktorek eragin dute, hala nola elektrizitatearen igoerak, eta abar. Joan den irailaren 26an gaia Ogasuneko informazio-batzordean aztertu ondoren, udaleko alderdi politiko guztiek adostasuna lortu dute, eta erabaki dute tasak eta zergak % 2,5 igotzea 2023rako, zaborra biltzeko tasa barne.

Horretaz gain, ondorengo aldaketak proposatzen dira:

- HILERRIKO TASA, 700 euro tara igotzea, espedientean justifikatutako argudioetan oinarrituta.

- 1-M tasaren izenburuaren aldaketa izen berri hau adieraziz:
"1-M.- LARRIALDI EGOERETAN HARRERA EGITEKO HERRIKO ETA AREAKO ETXEBIZITZA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA".

- Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren ordenantzako hobari ataleko 5-e) azpiatalaren idazketa aldaketa, idazketa berria hau izango delarik:

"e) %95eko hobaria etxebizitza eta jabe kide elkar teetan egiten diren obretan, erreforma barruan energia berriztatzailerak eta energia eraginkortasun neurriak integratzen badira."

- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga-ordenantzan beste hobari bat sortzea, 6. artikuluko 2-e azpiatala sortuz, honela idatzita:

"**2.e.** Kuotaren % 100eko hobaria ibilgailu historikoei edo gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna duten ibilgailuei, egiten diren egunetik zenbatzen hasita, edo, ezagutzen ez bada, lehen matrikulazioa edo, halakorik ezean, dagokion mota edo aldaera fabrikatzeari utzi ziztaion data kontuan hartuta.

adquisitivo real de la población, puesto que en la misma han influido factores tales como la subida de la electricidad, etc... Tratado el tema en comisión informativa de hacienda el pasado 26 de septiembre, todos los partidos políticos del ayuntamiento han llegado a un consenso acordando subir un 2,5% tanto las tasas como los impuestos para el año 2023, incluida la tasa de recogida de basura.

Además de ello, se proponen las siguientes modificaciones:

- Subir la TASA del cementerio a 700 euros en base a los argumentos justificados en el expediente.

- Modificación del título de la tasa 1-M indicando como nuevo título:
"1-M.- TASA POR UTILIZACIÓN DE VIVIENDA LOCAL Y DE ÁREA PARA ACOGIDA EN SITUACIONES DE EMERGENCIA".

- Modificación de la redacción del subapartado 5-e) de la bonificación de la Ordenanza del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, siendo la nueva redacción la siguiente:

"e) Una bonificación del 95% en las obras que se realicen en viviendas y comunidades de propietarios, siempre que se integren dentro de la reforma energías renovables y medidas de eficiencia energética"

- Creación de una nueva bonificación en la Ordenanza Fiscal reguladora del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica creando el subapartado 2-e del artículo 6 con la siguiente redacción:

"**2.e.** 100 % de bonificación en la cuota los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de treinta años, contados a partir de la fecha de su fabricación o, si ésta no se conociera, tomando como tal la de su primera matriculación o, en su defecto, la fecha en que el correspondiente tipo o variante se dejó de fabricar.

Como es resto de bonificaciones, ésta



Cod.Expediente:
2022UDAL0005

SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Gainerako hobariak bezala, zergadunak eskatu beharko du hobari hau, eta eskaera egin eta hurrengo ekitalditik aurrera izango du eragina."

Proposamena bozkatu ondoren, honako hau **ERABAKI DA**, bertaratutako zinegotzien aho batekotasunez:

LEHENENGOA: Aldaketak proposatu bezala onartzea.

BIGARRENA: Jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epea irekitzea, hogeita hamar egun baliaduneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

HIRUGARRENA: Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betikotzat joko da, osoko bilkuraren beste erabakirik behar izan gabe, eta tarifa berriak behin betiko argitaratuko dira 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jartzeko.

Alkateak adierazi du alderdi politikoek % 2,5eko igoera orokorra adostu dutela, eta PSEri eta EHBILDUri eskerrak eman nahi dizkie erakutsitako heldutasun politikoagatik eta ere bai eskertu nahi du bozeramaileek erakutsitako borondatea.

Hori esanda, nabarmen du instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zergan sartutako % 95eko hobaria, etxebizitzetan eta jabeen erkidegoetan egiten diren obretan, betiere energia berriztagarrien erreformaren eta energia-eraginkortasuneko neurrien barruan sartzen badira.

Maiite Quintanilla Lete zinegotzia 19: 07an sartu da saioan.

Alkateak azpimarratu du hobariak aplikatzeko, urtez urte eskatu behar direla.

Patricia Borinaga zinegotziak adierazi du bere taldeak udalaren diru-sarrerak

deberá ser solicitada por el contribuyente y causará efecto a partir del siguiente ejercicio al de la solicitud."

Sometida a votación la propuesta antedicha, por unanimidad de votos de los corporativos asistentes, se **ACUERDA:**

PRIMERO: Aprobar las modificaciones tal y como se han propuesto.

SEGUNDO: Abrir un periodo de información pública y audiencia a los interesados por el plazo de treinta días hábiles para la presentación de reclamaciones y sugerencias

TERCERO: En el caso de que no se presenten reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, sin necesidad de nuevo acuerdo plenario y se procederá a la publicación definitiva para su entrada en vigor desde el día siguiente al de la publicación.

El Sr. Alcalde manifiesta que los partidos políticos han acordado la subida del 2,5 % general, y quiere agradecer tanto al PSE como a EHBILDU la madurez política y la voluntad demostrada por parte de sus portavoces.

Dicho esto destaca la bonificación del 95% introducida en el impuesto de instalaciones, construcciones y obras en las obras que se realicen en viviendas y comunidades de propietarios, siempre que se integren dentro de la reforma energías renovables y medidas de eficiencia energética.

La concejala Maite Quintanilla Lete se incorpora a la sesión a las 19:07 horas.

El Sr. Alcalde recalca que para aplicar las bonificaciones estas han de ser solicitadas año por año.

La concejala Patricia Borinaga manifiesta que su grupo defiende que han de garantizarse los ingresos del Ayuntamiento ya que con ello se garantiza la prestación

bermatu behar direla defendatzen duela, era berean, horrekin zerbitzu publikoak eta sozialak ematea bermatzen baita.

Azken urteetan KPI-aren aldakuntzarekin bat datorren igoera adostu da; hala ere, urte hau berezia dela esaten du. Eta koiunturazko egoera izatea espero badu ere, erakunde publikoek ahalegina egin behar dutela uste du, eta ez KPI-aren igoera guztia herritarrei jasanarazi. Iruditzen zaio % 2,5eko igoera onargarria dela eta ahalegina egiten dela, bai herritarren aldetik, bai Udalaren aldetik ere.

Orain gobernu taldea dira eta planteamendua bateratua izan da, eta EH BILDUren jarrera eskertzekoa dela uste du, jarrera konstruktibotzat kalifikatuz.

Unai Larreategi zinegotziak eskerrak eman ditu zinegotziaren hitzengatik, eta adierazten du guztion aldetik ahaleginak egiten ari direla ekarpenak egiteko.

Dagoeneko azaldu da zergatik ez den % 10,3ko igoera aplikatu eta % 2,5eko igoera planteatu den. Errazena zergak eta tasak izoztea izango litzateke, baina errealitatea da aurre egin behar zaiela soldaten igoerei, kanpoko kudeaketa duten zerbitzuen kostuen igoerei, eta abarri. Uste du ulergarria dela igoera eta berau neurtua izan dela.

Energia berriztagarriei eta horien bultzadari dagokionez, zinegotziak dio hobariaren planteamendua bere taldearena izan bada ere, eta hobari bidez herritarren aldetik erabilera bultzatzearen efektua gertatzen bada ere, eztabaidatu eta aztertu beharko zela ea benetan gai honetan politikoki bultzatu eta sustapen-lana egin nahi den.

5.- AUTO TAXI TARIFA 2023 URTERAKO ONARTZEA.-

de servicios públicos y sociales.

Los últimos años se ha acordado la subida acorde con la variación del IPC, sin embargo, califica este año como especial, y, si bien espera que sea una situación coyuntural, considera que las instituciones públicas han de hacer un esfuerzo y no repercutir toda la subida del IPC a la ciudadanía. Le parece que la subida del 2,5% es asumible y que se realiza un esfuerzo tanto por parte de la ciudadanía como por parte del Ayuntamiento.

Ahora son equipo de gobierno y el planteamiento ha sido conjunto, y cree que es de agradecer la posición del grupo EH BILDU, considerando la misma como constructiva.

El concejal Unai Larreategi agradece las palabras de la concejala y manifiesta que se está realizando esfuerzo por parte de todos a la hora de realizar aportaciones.

Se ha explicado ya porqué no se incrementa el 10,3% y se incrementa el 2,5%. Lo más fácil hubiera sido congelar los impuestos y tasas, pero la realidad es que hay que hacer frente a subidas de salarios, incrementos de costes de servicios cuya gestión es externa, etc. Considera que es entendible la subida y que se trata de una subida medida.

En relación a las energías renovables y su impulso el concejal comenta que si bien el planteamiento de la bonificación ha sido de su grupo y mediante bonificación se produce el efecto de impulsar su uso por parte de la ciudadanía, cabría sacar a debate y analizar si realmente se quiere impulsar este tema políticamente y realizar una verdadera labor de promoción.

5.- APROBACIÓN DE LA TARIFA DE AUTO TAXIS PARA EL AÑO 2023.-



Cod.Expediente:
2022UDAL0005

SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

AGITAX Gipuzkoako taxisten elkarteak 2022ko irailean jakinarazi zion Udalarari 2023 urteari begira komenigarria zela tarifak igotzea.

La asociación de taxistas de Gipuzkoa AGITAX comunicó al Ayuntamiento en septiembre de 2022 que de cara al año 2023 era conveniente subir las tarifas.

Soraluzeko Ogasun batzordeak 2022ko irailaren 26an ontzat ematen du AGITAX elkartearen iritzia.

La Comisión de Hacienda, el 26 de septiembre de 2022, da el visto bueno al criterio de la asociación de AGITAX.

Gaia bototara jarri ondoren, bertaratutako zinegotzien aho batekotasunez, honako hau **ERABAKI DA**:

Sometido el tema a votación, por unanimidad de votos de los corporativos asistentes, se **ACUERDA**:

BAKARRA: 2023 urteari begira auto taxien tarifa ondoren zehazten den bezala igotzea:

ÚNICO: Incrementar la tarifa de auto taxi de cara al año 2023 según se indica a continuación:

2023KO HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
PROPUESTA TARIFA URBANA 2023					
TARIFA 1			TARIFA 2		
Gutxieneko tarifa Tarifa mínima	Egindako km Km recorrido	Itxaron ordua Hora de espera	Gutxieneko tarifa Tarifa mínima	Egindako km Km recorrido	Itxaron ordua Hora de espera
5,9745	1,4961	19,9966	6,5055	1,6558	21,0269

Alkateak esaten du nolabaiteko kontraesana dagoela planteatutako tarifen igoeraren eta ordenantza fiskaletan onartutako igoeraren artean. Agitaxen proposamena bere egin behar dutela uste du.

El Sr. Alcalde comenta que existe cierta contradicción entre la subida de las tarifas planteadas y la subida aprobada en las ordenanzas fiscales. Entiende que han de hacer suya la propuesta de Agitax.

Unai Larreategi zinegotziak uste du Agitax-i eskumenak eskuordetzan emateko dagoen araubidea argitu beharko litzatekeela.

El concejal Unai Larreategi cree que habría que aclarar el régimen de delegación de competencias a Agitax existente.

Patricia Borinaga zinegotziak, zinegotziaren ildo beretik, kontuan hartuta planteatutako igoera eta Udalak maniobrarako tarterik ez duela berez administrazioa denean tarifak onartzen dituen, erantsi du adiago egon beharko litzatekeela.

La concejala Patricia Borinaga en la misma línea que el concejal, consciente de la subida planteada y de la falta de margen de maniobra por parte del Ayuntamiento cuando en realidad es la administración que aprueba las tarifas, añade que se debería estar más pendiente.

6.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO 6/2022 ZK.KO KREDITU ALDAKETA.-

Soraluzeko Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko Kreditu Aldaketarako Espedientea irakurri da. Idazkari-Kontuhartzailak egindako txostenak

6.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 6/2022, MEDIANTE CRÉDITOS ADICIONALES.-

Dada lectura del Expediente de Modificación de Créditos, mediante Créditos Adicionales. Según el informe emitido por la Secretaria-Interventora, el expediente está ajustado a la normativa

dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaien araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei. Espedienteak 2022ko irailaren 26ko ogasuneko batzorde informatzailean aldeko irizpena du.

Udal Batzarrak, gehiengoz, EAJ/PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) Batzarkideei dagozkien aldeko sei botoz eta EHBILDUKo Batzarkideei dagozkien lau abstentzioz, ondorego erabakiak hartzen ditu:

Lehena.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el art. 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. El expediente cuenta con el dictamen favorable de la comisión informativa de hacienda de fecha 26 de septiembre de 2022.

La Corporación Municipal por mayoría de seis votos a favor, correspondientes a Corporativos de EAJ/PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cuatro abstenciones, correspondientes a Corporativos de EHBILDU, adopta los siguientes acuerdos:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este Ayuntamiento del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

KREDITU GEHIKUNTZAK
AUMENTOS DE CREDITOS

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GASTOS BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS	418.260,00
3	FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS	4.500,00
6	INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	141.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		564.260,00

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK
RECURSOS QUE LOS FINANCIAN
DIRUZAINZAKO GERAKINA / REMANENTE DE TESORERÍA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK ACTIVOS FINANCIEROS	564.260,00
GUZTIRA		564.260,00

Bigarrena.- Hamabost eguneko epez jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da eta

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a



Cod.Expediente:
2022UDAL0005

SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramite berdinak eman beharko zaizkio.

este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

Unai Larreategi zinegotziak adierazi du bere taldearen abstentzioa, SAPAko eremuan proiektatutako obretara bideratutako baliabideengatik dela. Kanpoko finantzaketa izan arren, uste du baliabide horiek udalerrian dauden beste premia batzuk asetzeko erabil beharko liratekela. Gaineratu du, aldaketa horren ondoren, diruzaintzako gerakinak behera egiten duela, 31.000 eurora arte, eta, horren aurrean, espero du aurre egin behar zaion ezustekorik ez suertatzea.

El concejal Unai Larreategi manifiesta que la abstención de su grupo se debe a los recursos destinados a las obras proyectadas en la zona de la SAPA. Aunque se cuente con financiación externa cree que esos recursos podrían destinarse a cubrir otras necesidades existentes en el municipio. Añade que tras esta modificación el remanente de tesorería disminuye hasta quedar 31.000 euros y ante esto espera que no surja ningún imprevisto al que haya que hacerle frente.

7.- KREDITU-ERAGIKETA ONARTZEA.-

Erakunde honek 500.000 euroko kreditu eragiketa bat kontratatu behar du, ekitaldi honetako inbertsioak finantzatzeko.

7.- APROBACIÓN DE OPERACIÓN DE CRÉDITO.-

Esta Entidad se encuentra ante la necesidad de contratar una operación de crédito por importe de 500.000 euros para financiar las inversiones de este ejercicio.

Idazkari-Kontuhartzaileak ondorengo txostenak barne dituen dagokion espediente osatu du:

La Secretaria-Interventora ha cumplimentado el correspondiente expediente incluyendo los siguientes informes:

- txosten ekonomiko-finantzarioa
- aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna eta gastuaren arauari buruzko txostena
- finantza iraunkortasunaren inguruko azterketa eta balioztatze txostena

- informe económico-financiero
- informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto
- informe de análisis y evaluación sobre la sostenibilidad financiera

gaia 2022ko irailaren 26ko Ogasun Batzorde Informatzaileak aztertu eta alde diktaminatu du.

El tema ha sido debatido y dictaminado favorablemente en la Comisión Informativa de Hacienda de fecha 26 de septiembre de 2022.

Udal Batzarrak, gehiengoz, EAJ/PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) Batzarkideei dagozkien aldeko sei botoz eta EHBILDUKo Batzarkideei dagozkien lau abstentzioz, ondorego erabakiak hartzen ditu:

La Corporación Municipal por mayoría de seis votos a favor, correspondientes a Corporativos de EAJ/PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cuatro abstenciones, correspondientes a Corporativos de EHBILDU, adopta los siguientes acuerdos:

Lehenengoa.- Ondoko ezaugarriak dituen mailegua kontratatzeko proiektua onartzea:

Primero.- Aprobar el proyecto de contrato de préstamo con las siguientes condiciones:

MAILEGUAREN DATUAK

- Entitatea: Caja Rural de Navarra
- Helburua: Inbertsioak finantzatzea.
- Zenbatekoa: 500.000 euro.
- Amortizazio epea: 15 urte.
- Karentzia: 0 urte.
- Interes mota: Hiruhileko euriborra + %0,28.
- Ordaintzeko maiztasuna: Hiru hilabetekoa.

Bigarrena.- Espedientearen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, kreditu-eragiketen gaineko finantza-tutoretza gauzatzeko.

Laugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea kontratua eta erabaki hau eraginkorak izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.

Unai Larreategi zinegotziak hitz egin du, eta esan du hitzartzen diren maileguen xedea proiektu estrategikoak izan beharko liratekela, eta, horiek egin ondoren, jarduketa horiek aurrezteko aukera ematen dutela. Kasu honetan inbertsio txikiak aurreikusten dira eta erakundearen zorpetze-ahalmena mugatzen da, egiturazko gabezia agerian utziz.

Alkateak erantzun du legegintzaldiaren aurreko urteetan ez dela mailegurik eskatu. Talde politikoekin ere haiekin partekatuz hausnartu da. Denok dakigu zer behar dauden eta zer proiektu dauden. Denok dakigu finantza-muskulu gutxi dagoela, baina erantzukizunez jokatu dela dio.

Maileguaren amortizazio-aldia hamabost urtekoa da, baina laster beste mailegu bat amortizatzen amaituko da. Esan du ez dela udala hipotekatzen, eta udal-baliabideen jakitun dela.

EH BILDU taldearen ekarpenak kontuan hartu dituzten proiektu estrategikoak garatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurilaritzarekin gestioak egin

DATOS DEL PRÉSTAMO

- Entidad: Caja Rural de Navarra
- Finalidad: Financiación de inversiones.
- Importe: 500.000 euros.
- Plazo de amortización: 15 años.
- Carencia: 0 años.
- Tipo de interés: Euribor trimestral + 0,28%
- Periodicidad de pagos: Trimestral.

Segundo.- Dar cuenta del expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa al objeto del ejercicio de tutela financiera sobre operaciones de crédito.

Tercero.- Facultar al Alcalde para que formalice el contrato y los documentos que se precisen para la efectividad de este acuerdo.

El concejal Unai Larreategi interviene y dice que el destino de los préstamos que se conciertan deben ser proyectos estratégicos que una vez realizados permiten el ahorro. En este caso se contemplan pequeñas inversiones y se limita la capacidad de endeudamiento de la entidad, poniéndose de manifiesto una carencia de carácter estructural.

El Sr. Alcalde contesta que en años anteriores de la actual legislatura no se ha solicitado ningún préstamo. Se ha reflexionado haciendo partícipe a los grupos políticos también. Todos somos conscientes de las necesidades y de los proyectos existentes. Todos somos conscientes de la escasez de músculo financiero pero afirma que se ha actuado con responsabilidad.

Se trata de un préstamo cuyo periodo de amortización es de quince años pero próximamente se termina de amortizar otro préstamo. Dice que no se hipoteca el Ayuntamiento y que es consciente de los recursos municipales.

Al objeto de desarrollar los proyectos estratégicos existente en los que se ha tenido en cuenta las aportaciones del grupo EH BILDU, se han realizado gestiones con Diputación Foral de Gipuzkoa y Gobierno Vas-



Cod.Expediente:
2022UDAL0005

SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

dira, eta laster berri onak izatea espero du.

8.- EZOZIBIDEA 34. ZENBAKIKO IGOGAILUAREN PROIEKTUA GAUZATZEKO LUR ZORU PUBLIKOAREN DESAFEKTAZIOA.-

Soraluzeko hiri-antolamenduko Plan Orokorrak 139. artikuluko b.2 atalean ezartzen duenez, "igogailuaren instalazioak jabari publikoari eragiten dionean, okupazio pribatiborako dagokion baimena lortu beharko da."

Zehazki, jabeen erkidegoak igogailua instalatu nahi du Ezozibidea 34. zenbakiko atarian, eta, horretarako, 10,67 m²-ko azalera jabari publikoaren desafektazioa behar du.

Desafektazioaren egokitasuna eta legezotasuna justifikatu behar dira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 81. artikulua araberak.

Hirigintzako Batzordea Informatzaileak proposatuta, Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batekotasunez, honako hau erabaki du:

Lehenengoa: Igogailua jartzeko aukera dagoela eta interes sozialeko beharra dagoela adieraztea, Ezozibidea 34. atariaren parean dagoen eremuan jabari publikoko 10,67 m²-ko azalera desafektatzeko.

Bigarrena: Desafektazio espedienteari hasiera ematea, hasierako onespenerekin, eta 30 egunez jendaurrean jartzea.

9.- TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO AKORDIOA. UDALSAREA 2030 – UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA.-

Ikusita Osoko Bilkurako Gai Orokorren Batzordeak aldeko irizpena eman duela,

co y espera con tener pronto buenas noticias.

8.- DESAFECTACIÓN DE SUELO PÚBLICO PARA LA INSTALACIÓN DE ASCENSOR EN EZOZIBIDEA Nº 34.-

El Plan General de ordenación urbana de Soraluze establece en el apartado B.2 del artículo 139 que "cuando la ubicación de la instalación de ascensor afecte a dominio público, deberá obtenerse la correspondiente autorización de ocupación privativa."

En concreto, la instalación de ascensor en el portal número 34 de Ezozibidea por parte de la comunidad de personas propietarias requiere la desafectación del dominio público de 10,67 m² (de superficie).

Debe justificarse la oportunidad y legalidad de la desafectación, según el artículo 81 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo el Pleno, por unanimidad de los corporativos asistentes, acuerda:

Primero: Declarar la existencia de oportunidad y la necesidad de interés social en la instalación del ascensor, a fin de efectuar la desafectación de una superficie de 10,67 m² del dominio público en la zona situada frente al portal número 34 de Ezozibidea.

Segundo: Iniciar el expediente de desafectación, con la aprobación inicial y acordar la exposición pública durante 30 días.

9.- ACUERDO PARA EL IMPULSO DE LA ACCIÓN LOCAL SOSTENIBLE Y LA AGENDA 2030 LOCAL EN EUSKADI. RENOVACIÓN DE UDALSAREA 2030, RED VASCA DE MUNICIPIOS SOSTENIBLES.-

Visto dictamen favorable de la Comisión de Asunto Generales del Pleno de someti-

ESKU416e656b-4150-4d1c-81f8-ab36a1dd48ff

2022ko urriaren 3ko osoko bilkurak erabaki hori eztabaidatu eta onartu dezan.

Udalbatzak honako erabaki hauek hartu ditu bertaratutako zinegotzien aho batekotasunez:

Lehenengoa.- Soraluzeko Udala Udalerri Jasangarrien Euskal Sareari (Udalsarea 2030) atxikitzea onartzea.

Bigarrena.- Konpromisoak bere gain hartzea eta akordioaren testuan adierazten diren eginkizunak betetzea.

Hirugarrena.- Erabaki honen edukia jakinaraztea Udal Jasangarrien Euskal Sareko Idazkaritzari (Udalsarea 2030).

TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO AKORDIOA. UDALSAREA 2030 – UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA

AURREKARIAK

Lehenengoa.-

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak "Gure mundua eraldatu: garapen jasangarrirako 2030 Agenda" dokumentua onartu zuen 2015ean, hau da, "pertsonek, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat". 2030 Agendak zuzenean eskatzen die tokiko gobernuei agenda modu egokian ezarri dezatela eta beraren Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) eta helmugak bete ditzatela. Tokiko eskumenei estu lotuta, 2030 Agendak exijitzen du tokiko politika eta kudeaketa bestelako modu batean egin daitezela, legegintzaldia bera gainditzen duen epe luzean ikuspegi estrategiko batez, anbizioz eta eraldatzeko nahiaz jokatzuz, ikuspegi hori ekonomia, gizarte eta ingurumenaren alor guztietan hedatuz. Ahalbidetzen du, gainera, udal politika eta kudeaketaren ahaleginak eta baliabideak arrazionalizatzea, helburuen arabera lan eginez eta emaitzak ebaluatzeko eskatuz, herritarren parte-hartzea sustatuz eta gizarteari kontuak ematearen alde arituz.

Covid-19aren osteko susperraldi eta eraldaketara zuzendutako tokiko gobernantza berria 2030 Agendan oinarritu beharko litzateke eta hasieratik beretik GJHetan eta

miento del acuerdo a debate y posterior aprobación por el Pleno de fecha de 3 de octubre de 2022.

La Corporación Municipal adopta por unanimidad de los corporativos asistentes, los siguientes acuerdos:

Primero.- Aprobar la adhesión del Ayuntamiento de Sorluze a la Red Vasca de Municipios Sostenibles, Udalsarea 2030.

Segundo.- Asumir los compromisos y realizar las funciones que se indican en el texto del acuerdo.

Tercero.- Comunicar el contenido de este acuerdo a la Secretaría de la Red Vasca de Municipios Sostenibles, Udalsarea 2030.

ACUERDO PARA EL IMPULSO DE LA ACCIÓN LOCAL SOSTENIBLE Y LA AGENDA 2030 LOCAL EN EUSKADI. RENOVACIÓN DE UDALSAREA 2030, RED VASCA DE MUNICIPIOS SOSTENIBLES

ANTECEDENTES

Primero.-

La Asamblea General de Naciones Unidas aprobó en 2015 el documento "Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el desarrollo sostenible", un plan de acción a favor de las personas, el planeta y la prosperidad". La Agenda 2030, emplaza directamente a los gobiernos locales para su correcta implantación y el cumplimiento de sus Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y metas. Estrechamente ligada a las competencias locales, la Agenda 2030 exige un modo diferente de hacer política y gestión local con un enfoque estratégico a largo plazo que trascienda a la propia legislatura y una visión ambiciosa y transformativa, a desplegar en los ámbitos de la economía, la sociedad y el medio ambiente. Permite, además, racionalizar esfuerzos y recursos de la política y gestión municipales al trabajar por objetivos e instar a evaluar resultados, fomentando la participación ciudadana y la rendición de cuentas a la sociedad.

La nueva gobernanza local para la recuperación y la transformación post Covid-19, debiera erigirse en base a la Agenda 2030 e inspirarse desde sus inicios en los distintos



